

## IRAKASLEENTZAKO ORIENTAZIO PEDAGOGIKOAK

Lerro hauen bidez, ikasgelan Elkarbizitza eta Bakerako Hezkuntza lantzeko lagungarriak izan dakizkizuekeen orientazio batzuk aurkezten dizkizuegu.

Gatazkaren ikuspegitik abiatzen gara, pertsonen arteko harremanen berezko zerbait delako. Ikasgela eta hezkuntza zentroa elkarbizitzarako espazio ezin argiagoak dira, eta, beraz, gatazketarako klima egokia dute. Egunerokotasuna dela eta, desberdintasunak, eztabaidak, iritziak... pizten ditu.

Espazio horretan, irakasleek Elkarbizitza eta Bakerako Hezkuntza lantzeko aukera dute. Elkarren arteko aberastasunean, ikasketa kooperatiboan eta, azken batean, ikasleak indibiduo moduan eta ikasleek kolektibo moduan dituzten potentzialtasun guztiak garatu nahi dituen hezkuntza estrategian oinarritutako *elkarbizitza* da.

Gure jatorrizko hezkuntza sistemen ereduan, elkarbizitza eta bakea ikasgelako lasaitasun, ordena eta giro ontzat zegoen hartuta, ezagutzak modu egokian transmititzeko. Errealitate sozialak albo batean utzi du paradigma hori, eta ikasketa eta irakaskuntza prozesu tradizionaletako gabezia handiak utzi ditu agerian.

Irakasleen agintea zalantzan dago, ez soilik ikasleengatik, baizik eta familiengatik ere. Hemen zuen esku jartzen dugun materialak "buelta eman" nahi dio ikasgeletan egunero bizi den irakasle-ikasleak eskema zatikatuari. *Tutoretza ekintza plan* bat eskaintzen dizuegu, ikasgela modu demokratikoan kudeatzeko; kudeaketa konpartitua, zeinen bidez erantzukizuna berau osatzen duten pertsona guztien gainean geratuko baita.

Ez gaude hezita bizi ditugun *gatazken erregulazio egokian*, baizik eta alderantziz. Ondo dakigu ikaslea eroso dagoela irakasleekiko norgehiagokaren ereduan, eta, sarritan, aldaketen kontra ere egoten dela.

Tutoretza ekintza plan horrekin, ikasgelako egunerokotasunean sortzen diren gatazkei modu arrakastatsuan aurre egiteko *gaitasun emozionalak* eman nahi zaizkie irakasleei zein ikasleei. Gauzak horrela, Lehen Hezkuntzako lehen urteetan hasi eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloraino doan ibilbidea planteatzen dugu.

Proposatutako ibilbidearen oinarri metodologikoa *ikuspuntu sozioafektiboa* da. Proposatzen dizuegun metodoa aktiboa, esperientziala eta kooperatiboa da. Berez, eta lana aurrera eramateko modutik abiatuta, metodologia horrek giro kooperatiboa sortu nahi du taldean, eta bilaketa kolektiborako jarrera. Aurrez sortutako konponbideak ez zaizkigu interesatzen, uste dugulako prozesua emaitza bezain garrantzitsua dela. Ikasketaren protagonistak izateak konkistak sendotzen ditu, eta, aldiz, kanpotik datozkigun lezioei gehiago kostatzen zaie "sartzea".

Metodologia sozioafektiboaren ezaugarrietako bat barruko hausnarketak, esperientziak eta bizipenak piztuko dituen esperientzia hunkigarri batetik pasatzea da, hausnarketak ez daitezen burmuinean soilik geratu. Dena dela, dinamikak, jokoak edo jarduerak baino askoz ere garrantzitsuagoa da dinamikaren osteko berrikusketa eta hausnarketa.

Gainera, taldean giro positiboa ere sortu behar da: horrek lagundu egiten dio lan bateratuari. Inork ezin du ezer ere ikasi estres, tentsio edo motibaziorik gabeko egoeran. Horretarako, kontuan hartu behar da zeintzuk diren taldea egoera onean egon dadin eman beharreko pausoak: taldearen *erlaxazioa*, taldeko kide bakoitzaren *onarpena*, helburu komunen bilaketan eman behar den *kooperazioa* eta kideen arteko *komunikazioa*, hitzez zein beste edozein modutan. Espazioa ondo banatuta egoteak giro positiboa sortzen du.

Saioen eta ibilbide pedagogikoaren ebaluazioak arreta berbera merezi du: denbora bat behar da zenbait gauza baloratzeko, hain zuzen ere, egindako lanaren arlo positiboak eta gatazkatsuak, ahalegina, hezkuntza harremana, interesa, edukiak, metodologia, gidaritza...

Proposatzen dugu irakaslea, ikasleekin batera, bilaketa prozesu batean sartzen den hezitzailea izatea, ikasleekin batera galderak egitea bere buruari, bere emozioak eta zailtasunak ezagutzea. Gainera, ez du konponbiderik izan behar lehendik prestatuta, baizik eta zenbait tresna dinamiko, modu kolektiboan eta sorkuntzan oinarrituta lan egiteko.

Gure aletxoak jarri nahi izan dugu elkarbizitza eta bakerako hezkuntzaren eskolako lan zailean. Material hau zuen ekarpenetara zabalik dago, eta, elkarrizketa erabiliz, zuen egoerara egokitutako errealitateetara moldatuko den tresna izan nahi du.

Agur bero bat eta gogor lanarekin.